



## ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA. ESKOLA JASANGARRIA

2016-2017 ikasturtean, Arantzazuko ama ikastolak, Eusko jaurlaritzak egokitzen duen eskola jasangarriaren agiria lortu zuen.

Arantzazuko Ama Ikastolako Hezkuntza Proiektuan (IHP), gure ikastolaren izaeraz hitz egiten dugunean, euskalduna; inklusiboa eta ikasle eraikitzailea; elkar bizitza, hezkidetzeta eta errespetuan oinarritua; parte hartzailea; **jasangarria**; kalitatezkoa eta berritzaile gisa definitzen dugu.

Izaera jasangarria esaten dugunean, ohitura osasungarriak eta jasangarriak bultzatzen dituen; osasuna aisialdi aktiboa, elikadura, higiena, sexualitatea eta ingurumenarekiko ardura gisa azaltzen dugu.

Aldi berean, IHP dokumentuan, gure ikastetxeak jasangarritasunari dagokionean, ezartzen dituen helburuak honakoak dira:

- Gure ikasleak giza eskubideen, balio etikoen, aniztasunean, elkar-onartzean eta askatasunen errespetuan hezteko, identitate, orientazio sexual edo beste edozein bazterketa-jokabideak ekiditeko.
- Ikasleen garapen kognitibo eta emozionala bultzatzea, hezteko eta pertsona-artearen harreman positiboak eraikitzekeko trebetasunak landuta.
- Irakasleen hobekuntza jarraitua bultzatuz, irakasleen artean koordinazioa eraginkorra lortzea eta eskola emaitzak hobetzea, kalitatezko hezkuntzaren adierazle den aldetik.
- Ikastolako giza baliabide eta baliabide material guztiak era egoki eta eraginkorrean kudeatzea.
- Eskola komunitateko partaide guztiei parte hartze demokratikoa eta kontsentsua bilatzen duena bermatzea, ikastolaren antolaketa eta garapenean.
- Ingurunearekiko eta gizartearekiko konpromiso solidarioan hezteko, giza bidezko ohiturak garatuta.

- ICTren erabilera etikoa areagotzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta eskola-komunitatearen eragileen parte-aktiboaren zerbitzura ipinita.

Honetaz guztiaz gain, Arantzazuko Ama ikastolaren IHP dokumentuan, ildo pedagogikoen atalean, honakoa zehazten dugu:

*"Arantzazuko Ama Ikastolak **jasangarritasunaren** alde lan egiten du **Eskolako Agenda21 (EA21)** proiektuaren bitartez. Eskola osoan sentsibilizazio eta diagnostiko jarduerak egin ondoren, hainbat ekintza garatzen dira. Honen bitartez jarrera kritiko eta arduratsuak sustatu nahi ditugu gure ikasleengan eta haien bitartez, ingurune eta jendarte ahalik eta bidezkoena eskaini".*

Azkenik, ezin aipatu gabe utz ditzakegu, EA21 lan taldearen baita ikasgeletako urteko planetan azaltzen diren helburua eta ekiteak.

#### • **JASANGARRITASUNAREN CURRICULUM TXERTAKETA.**

Arantzazuko Ama ikastolak, orain dela 8 urtetik darama Eskolako Agenda 21 (EA21) egitasmoan parte hartzen, eta horren aurretik ere, egiten ziren baliabideen erabilera egokiaren inguruko hausnarketak, hondakinen sailkapenak (egunkariak batetik, eta fruta azalak bestetik –gerora, Martuteneko baserri desberdinetako animalientzako jasotzen zena-), elkartasun kanpaina desberdinetan parte hartzea (Saharako lagunen elkartea, Errigora...), eskola komunitatearen parte hartzea sustatzea (gurasoentzako Euskara ikastaroak, jolas ikastaroak, guraso eskola...) Azkeneko ikasturte hauetan, EA21 landutako gaien txertaketa curricularra burutu dugu:

**2.013/2.014:** Elikadura gaia landu genuen. Honen ondorioz, ikasleen hamaiketako ohiturak aztertu, eta osasuntsuagoak egite aldera, ostegunetan fruta eguna ezarri zen, eta gainerako egunetan, hamaiketako osasungarriak eta hondakinak murrizte aldera, tupper edo bilgailu berrerabilgarriak sustatu ziren (ontzientzako txokoa ezarriz). Azkenik, ikastolako patio eta bestelako eremuen zainketa, eta hondakinen murrizketa lantze aldera, "patruila berdea" sortu genuen. Ikasgela bakoitzeko bina kide (txandaka) patioaren garbiketaren eta edukiontzien erabilera egokiaren zaintza egiten dute. 2.016-2.017 ikasturtetik aurrera, LH 6 mailako kideek dinamizatzen duten egitasmoa da, eta gainerako ikasmaileek parte hartze eta laguntza ematen dute.

**2.014/2.015:** Mugikortasun jasangarria landu genuen. Honen ondorioz, Eskola Bidea kanpaina urtez urte martxan jarri dugu,

ikasleen autonomia landu, baita ohitura osasuntsuak ere. Oraingoan ere (2.016/2.017), udaberriarekin batera garatuko dugu.

Gai honi dagokionean esatea, orain arte gure ikasleriaren %5, ikasle garraiatuak zirela ikastolako sarrera eta irteeretan. Baina 2.014/2.015 ikasturtetik aurrera, zerbitzu horretan murrizketak eman dira, eta guraso batzuei, kotxea hartzea beste erremediorik ez zaie geratu.

**2.015/2.016:** Hiri jasangarria gaia landu genuen. Honen ondorioz, Martutene auzoak bizitako eraldaketa urbanistiko eta soziala aztertu genuen, eta bertako produktuen aldeko apostua egin genuen. Hau honela, eskola baratza burutu genuen. Baratza aurrera eramateko beharrezkoak diren ezagutzak jasotze aldera, ikasturtero, HH6 eta LH3 mailako ikasle eta irakasleek, Ekogunera irteera egingo dute, hango ezagutza eta sakontze tailerretan parte hartuz.

Honekin batera, elikagaien ziklo osoa ezagutu nahian, hondakin organikoen konpostagailua abiatu genuen. Egun, LH 2 mailako ikasleak dira honen arduradun, ikasturte guztian zehar burutzen dutelarik honakoa.

Horretaz gain, bi ikasturtean behin, **Kontsumobidek** (Kontsumoko Euskal Institutua) eskaintzen dituen formazio tailerretan parte hartzen dugu. Etapa osoan zehar, honako gaia jorratu nahi ditugu tailer hauen bidez:

LH 1	Frutak eta barazkiak	Jolasa eta jostailua
LH 2	Litxarrerriak	Ura: nola kontsumitu eta aurreztu
LH 3	Frutak eta barazkiak	Jolasa eta jostailua
LH 4	Elikagaien ekoizpena	Bideo-jokoak
LH 5	Frutak eta barazkiak	Telefono mugikorra eta internet
LH 6	Supermerkatuak eta erosketak	Publizitatearen analisia

**2.016/2.017:** Bioaniztasun naturala gaia landu zen. Txertaketa curricularrarekin kezka sortu zitzaizkigun eta klaustro mailan eztabaida sortu zen. Hain zuzen, gai zehatz batzuk txertatu beharra proiektu globalizatuarekin lan egiten dugunean ez dugu argi ikusten. Dena den, aurreko ikasturtean zuhaitzatu kanpaina aurrera eraman zuten 1go ziklokoek eta printzipioz gaiarekin lotura zuzena izanda, urtero aurrera eramateko ekintza bezala pentsatu zen.

## • **EROSKETA BERDEKO IRIZPIDEAK.**

Ingurumena babestera zuzenduta dauden barne funtzionamenduko ekimenak dira irizpideok. Eskola komunitateak, jasangarritasunerantz eman ahal duen beste prozesu bat da.

**Erosi aurretik**, benetan behar ote dugun aztertu behar da, kontsumo beharrak zeintzuk diren birplanteatu; **erosterakoan**, zer erosiko ote dugun, ingurumenarekiko eskaintza egokia aukeratu (ekoetiketa), behin **erositakoan**, nolako erabilera ematen diogu, berrerabilketa egiten ote dugun; eta **azkenik**, hondakinen kudeaketa egokia egiten ote dugun.

Ikastetxean ohiko erosketak honakoak dira:

- Papera eta eskola materiala.
- Ekipo informatikoak.
- Garbiketa produktuak.
- Elikagaiak.
- Beste zenbait: mediateka, psikogela...

Ondorengo lerroetan, Arantzazuko Ama ikastolak, erosketa berdearen inguruan adostutako irizpideak honakoak dira:

a. Papera eta eskola materiala.

Paperari dagokionean, A4 tamainakoa eta A3 tamainakoak erabiltzen dira, lehenengo mota bereziki. %100 berziklatua erosten da Montten.

Bestelako eskola materialari dagokionean, honako irizpideak jarraitzen dira:

- Osasunean eta ingurumenean eragin kaltegarriak dituen materialik gabeko produktuak.
- Material birziklatu askoko produktuei lehentasuna ematen zaie.
- Erraz berziklatzen direnak.
- Ez sexistak.
- Banakako bilgarrietan datozenak ekidin.
- Neurriak hartzen dira eskaera egiterakoan (desplazamendua)

Honetaz guztiaz gain, produktu bakoitzaren erabilera eraginkor eta egokiena egite aldera jarduten dugu. Hainbat eskola materialari dagokionean, errotulagailu, axota, veleda eta tippex-ea dagokienean, hauen hondakinen jasoketa selektiboa egiten dugu, 20 kilogramoko hondakinetara iristen garenean, VIC konpainiako enpresak jasoketa egiten baitu.

a. Ekipo informatikoak.

2.014-2.015 ikasturtean, Arantzazuko Ama ikastolak bakarkako ibilbidea hasi zuenetik, HH-LH ikasleek erabiliko duten informatika gela (e-gela) hornitzen ari gara, guraso elkarteari esker.

Hau honela, berau hornitzeko erabiltzen ari garen irizpideak honakoak dira: Egurrezko altzariak (material naturalak),erabilera anitzekoak eta epe luzaerakoak izatea besteak beste.

a. Garbiketa produktuak.

Arantzazuko Ama ikastola, EAE Eskola Publikoen sarean dago, hau dela eta, ikastetxearen garbiketa, kanpo enpresa batek egiten du haien irizpideekin.

a. Elikagaiak.

Arantzazuko Ama ikastola, EAE Eskola Publikoen sarean dago, eta jangela zerbitzua, Ausolan enpresaren eta irizpideen esku dago.

a. Beste zenbait.

- Ikasgelako baliabideak:

Ikasturtean zehar, hainbat materiale hornitzeko aukera izaten dugu, eta hauek erosteko erabiltzen diren irizpideak honakoak dira:

- Denboran zehar erabiltzeko materiala izatea.
- Ahal dela material naturalez egindakoa (egurra).
- Bigarren eskukoak izatea baloratuko da.
- Mediateka:

Ikasturtean zehar, hainbat materialez hornitzeko aukera izaten dugu, eta hauek dira erabiltzen diren irizpideak:

- Liburu guztiak forratu egingo dira.
- Familiei, etxean dituzten eta erabiltzen ez dituzten materialak eskatzen zaizkie, forratu eta eskola komunitatearen esku jartzen dira.
- Maileguaren azalpena egitearekin batera, materialen erabilera egokiaz jarduten da.
- Puskatutako materialei dagokienean, momentuan konpontzen dira. Ezinezkoa denean, material hori berriro erostea baloratzen da (duen erabileraren arabera izango da).
- Psikomotrizitate gela:

Ikasturtean zehar, hainbat materialez hornitzeko aukera izaten dugu, eta hauek dira erabiltzen diren irizpideak:

- Familiei eska ahal zaizkien baliabideak: maindireak, kuxinak, burukoak, panpinak...
- Dagoen materialaren konponketa egiten da (kremailerak, puskatutakoak josi...)
- Ikasturte amaieran, inbentarioaren errepassoa egin, eta zerbait erosi behar bada, baloratu.

- **MUGIKORTASUN IRIZPIDEAK.**

a. Eskola komunitatea.

“Eskolako bidea” izeneko ekimenaren helburuak honakoak dira:

- Ikasleak eskolara oinez joatea mugikortasun aktiboa eta ariketa fisikoa bultzatuz eta sedentarismoa ekidituz.
- Hiri jasangarriago betera bidea eginl.
- Ikasleak autonomoak izatea eta horrela osasuntsuagoak eta ez hain menpekoak.

- Etxetik eskolarako bidea, bide ziburra eta osasuntsua izatea.
- Haurrak, etxetik eskola oinez etortzeko ohitura hartzea.

Lorpen guztiek gure auzoa leku "bizigarriago bat egiten lagunduko dute, jakinik betiere "haurrentzat seguruago den auzo bat, halaxe izango dela helduentzat ere".

b) Ikas orduetako mugikortasun irizpideak.

Ikastolaz kanpoko irteeretan, ahal dela oinezko ibilbideak lehenetsiko dira. Gainera, ikasleen adinari dagozkion moldaketak egin daitezke (txirringaz nahiz patinenez garraiatutako ibilbideak eginez).

Oinez joatea ezinezkoa suertatzen denean, tren nahiz autobusa proposatzen dira garraio gisa. Autobusaren kasuan, helmugaren arabera, Donostian denean, Donostiako Autobus Konpainiaren (DBUS) zerbitzua lehenesten da, gainerako garraio kolektibo pribatuaren aurrean

• **TOKIEN, BALIABIDEEN ETA HONDAKINEN KUDEAKETARAKO IRIZPIDEAK.**

a) Tokien, espazioen kudeaketarako irizpideak: Eskolako patioa auzoari irekitako espazio bat da. Eskolatik proposatu izan zaio Udalari hondakinen sailkapena egiteko zabor ontziak jartzea baino oraingoz ez da gauzatu. Garbiketa eta mantenua, eraikuntzarena eta patioaren Udalak eramaten du eta haien irizpideen arabera jokatzeko dute.

b) Hondakinen kudeaketarako irizpideak: Arantzazuko Ama ikastolan sortzen diren hondakin guztien sailkapen eta kudeaketa egiten da.

- Batetik, ikasgela eta gidatutako espazioetan (baratza...) sortzen diren hondakinak ditugu.

Ikasgela bakoitzean hiru edukiontzi desberdin daude. Papera, ontziak eta errefuxa. Hauen kudeaketa, ikasleek egiten dute, eta asteartero, edukiontzi orokorretara hustu behar dituzte.

Horretaz gain, pasabide eta patioan, edukiontzi marroiak ditugu, bertan hondakin organikoak jasotzen dira. LH2 mailako ikasleek, asteartero eta ostiralero hustu egiten dituzte, bertako hondakinak konpostagailuan jartzen dituztelarik.

Azkenik, bestelako hondakinentzako edukiontzia dugu. Batetik, axota, errotulagailu... ontzia ikastetxearen sarreran dago. Eta bestetik, CD, DVD... hondakinentzako edukiontzia, ikastetxearen Zuzendaritzan dago.

- Bestetik, toki komunetan sortzen direnak (komunak, jolas tokiak...)

Jolastoki nahiz komunetan sortzen diren hondakinak, garbiketa enpresaren esku geratzen dira.

- Eta azkenik, jangelan sortzen diren hondakinak ditugu. Jangelan sortzen diren hondakin guztiak (papera, ontziak, organikoa eta errefuxa), Donostiako udalak araututako irizpideen arabera kudeatzen da. Hondakinen bereizketa egiten da.

- **IKASTETXEAN ETA INGURUAN PARTE HARTZEKO IRIZPIDEAK.**

Arantzazuko Ama Ikastolako Hezkuntza Proiektuan (IHP), gure ikastolaren izaeraz hitz egiten dugunean, euskalduna; inklusiboa eta ikasle eraikitzailea; elkar bizitza, hezkidetzatza eta errespetuan oinarritua; **parte hartzailea**; jasangarria; kalitatezkoa eta berritzaile gisa definitzen dugu.

Parte hartzailea esaten dugunean, irakasle, langile, ikasle eta gurasoak osatutako komunitatearen ari gara; parte hartzean oinarrituta, curriculumean eta antolaketan autonomia duena eta ingurunean txertatuta dagoena.

Aldi berean, IHP honako helburuak daude zehaztuak parte hartzeari dagokionean:

- Ikastolako giza baliabide eta baliabide material guztiak era egoki eta eraginkorrean kudeatzea.
- Eskola komunitateko partaide guztiei parte hartze demokratikoa eta kontsentsua bilatzen duena bermatzea, ikastolaren antolaketa eta garapenean.
- Ingurunearekiko eta gizartearekiko konpromiso solidarioan hezte, gizabidezko ohiturak garatuta.

Honetaz guztiaz gain, Arantzazuko Ama ikastolaren IHP dokumentuan, ildo pedagogikoen atalean, honakoa zehazten dugu:

*"Irizpide metodologiko hauek, ikastetxeko hezkuntza-helburuekin batera **ikaskuntza-mota** zehatz bat egituratzen digute, honen ardatz nagusienak honako bi hauetan labur litezkeelarik :*

***1-Hezkuntza esanguratsua:** Instrukzio eta arlo akademiko hutsetik aldatzen den ikaskuntza mota zabalago eta esanguratsuagoa eskaini nahi dugu hezkuntza jarduerak bere barne dituen eremu guztiak kontutan hartu nahi ditugularik. Hau, proiektuka lan eginez bideratzen dugu.*

*Honekin porrotera daramaten prozesuak baztertu eta haurrekiko hezkuntza ulerkorragoa erraztu nahi dugu, berauen gaitasun eta garapen ahalmenak kontutan hartu eta ahalik eta ikaskuntza atsegin eta egokienean jarri nahi ditugularik .*

**2-Partehartzailea:** Gure hezkuntza helburu garrantzitsuenetako bat haurrak autonomian heztea da. Autonomian hezten baditugu, haurraren **jarrera kritikoa** suspertzea lortuko dugu eta bai irakaskuntza mailan, bai errealitatean, parte hartzaile izatearen beharra sentiaraztea ere”.

- **EBALUAZIO ADIERAZLEAK.**

Agenda 21eko batzordetik eta ingurumen batzordetik guzti honen jarraipena egiten da eta zuzendaritza taldearekin koordinazioan lan egiten da. Ikasturte amaieran, memorian jasotzen da eta hurrengo ikasturterako proposamenak adosten dira.